

## IRIZPENA 23/05

Mari Tere Ojanguren, jarduneko  
presidentea  
Begoña Cabria  
Lierni Lizaso  
Idoia Pujana  
Eduardo Ubieta  
Lourdes Villardón  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2023ko otsailaren 16ko urrutiko bilkuran bazterrean aipatutako kideak parte hartu zuten. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza Sailaren titularitatekoa den ikastetxe bat eraldatuz Lanbide Heziketako ikastetxe integratua Plaiaundi sortzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

## I. AURREKARIAK

Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren xedea da lanbide-heziketako sistema bakar eta integratu bat eratzea eta antolatzea. 78. artikuluan, besteak beste, eta aldezturik administrazio-baimena emanda eta erregistroan inskribatuta, lanbide-heziketako ikastetxe bateratuek lanbide-heziketako eskaintzak eman ahal izango dituzte. 79. artikuluan, lanbide-heziketako eskaintzak emateko baimena duten ikastetxe guztien funtzionamendura ezartzen du, eta adierazten du lanbide-heziketako ikastetxeen espezializazioa, ikastetxe integratuak sortzea eta haien artean espezializazio adimenduneko sareak sortzea bultzatuko dela.

Abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuak lanbide-heziketako ikastetxe integratuentzako oinarriko baldintzak arautzen ditu

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak II. Kapituluari jasotzen du lanbide-heziketako euskal sistema integratua.

46/2014 Dekretuak arautzen ditu Euskadiko lanbide heziketako ikastetxe bateratuak bere 8.1 artikuluan, non zehazten baitu ikastetxe horiek berriak izan daitezkeela eta baita ere lehendik daudenak eraldatuz, batuz edo banatuz sortu direnak.

## II. EDUKIA

Dekretuak lau artikulua, hiru xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikulua Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu bihurtzen du IES PLAIAUNDI BHI, 2023ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarren artikulua aipatutako ikastetxea titulartasun publikoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sarean sartzen du.

Hirugarren artikulua Prestakuntza-eskaintzari buruzkoa eta beste zerbitzu batzuei buruzkoa da.

Ikastetxeko langileei buruzko 4. artikulua, 1. atalean, behin betiko irakasle funtzionarioak berraxikitzea xedatzen du, eta prozesua egiteko arauak aipatzen ditu; bigarrenak, xedatzen du Hezkuntza Sailak dekretu bidez argitaratuko duela lanpostuen zerrenda, eta bertan sartuko dela ikastetxe eraldatuko irakasleen plantilla.

Lehenengo Xedapen Gehigarria ikastetxe eraldatuaren zuzendariaren kargu-uzteari buruzkoa da; Bigarrena Batzorde Sozial eratzeari buruzkoa da, eta hirugarrena, Dekretuaren ondorio-datatik aurrera Plaiaundi BHIri egiten zaizkion erreferentziei buruzkoa.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

## III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Informatzen ari garen dekretu-proiektu honek IES PLAIAUNDI BHI Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu bihurtzen du.

Hezkuntza Sailaren mendeko beste ikastetxe batzuen eraldatzen baten ondorioz integratutako ikastetxeak sortzeko zenbait dekretu-proiekturi buruzko irizpena eman du Euskadiko Eskola Kontseiluak.

Proiektuarekin batera doan memorian adierazten denez, Euskadiko hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko LH eskaintzen duten 86 ikastetxeen horietako 41 dagoeneko integratuak dira Ikastetxe horiek Lanbide Heziketako irakaskuntzak baino ez dituzte eskaintzen eta ematen.



Euskadiko Eskola Kontseiluak ez dauka oztoporik dekretu proiektuak planteatzen duen bezala ikastetxe bat eraldatzeko, betiere 46/2014 dekretuko eskakizunak betetzen badituzte ikastetxe integratu izateko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2023ko otsailaren 16an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

JARDUNEKO PRESIDENTEA

Sin.: M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren

HEZKUNTZA SAILBURUA